



GOBERNANTZA PUBLIKO ETA  
AUTOGOBERNU SAILA  
Araubide Juridikoaren  
Sailburuordetza  
Lege Garapen eta Arau Kontrolerako  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA  
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO  
Viceconsejería de Régimen Jurídico  
Dirección de Desarrollo Legislativo y  
Control Normativo

<b>LEGEZKOTASUN-TXOSTENA, MIGRAZIO ETA ASILORAKO EUSKAL FOROA SORTZEKO DEKRETU-PROIEKTUARI BURUZKOA</b>	<b>INFORME DE LEGALIDAD RELATIVO AL PROYECTO DE DECRETO POR EL QUE SE CREA EL FORO VASCO DE MIGRACIÓN Y ASILO</b>
<b>LGAKZ -LT 17/2023 DNCG_DEC_60699/21_10</b>	<b>17/2023 IL – DDLCN DNCG_DEC_60699/21_10</b>
<b>I. SARRERA</b>	<b>I. INTRODUCCIÓN</b>
<p>Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari eskatu dio aipatutako dekretu-proiektuari buruzko nahitaezko legezkotasun-txostena eman dezala, eta espedientea izapidetzeko beharrezkoak diren hainbat dokumentu erantsi dizkio.</p>	<p>El Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, ha solicitado del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, la emisión del preceptivo informe de legalidad en relación con el Proyecto de Decreto de referencia, al que se adjuntan diversos documentos necesarios para la tramitación del expediente.</p>
<p>Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 11.2.a) artikuluan, bai eta Gobernantza</p>	<p>El presente informe se emite en virtud de lo dispuesto en el artículo 5.1 de la Ley 7/2016, de 2 de junio, de Ordenación del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco, en relación con el artículo 11. 2 a) del Decreto 144/2017, de 25 de abril, del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco, y del artículo 15.1 c)</p>

Este documento es una representación del original disponible a través del localizador y la sede electrónica indicados al pie de página.  
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako lokalizatzalearen eta egoitza elektronikoaren bidez eskuragarri dagoena.

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ  
Telf. 945 01 86 30 - Fax 945 018703 -



<p>Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 15.1 c) artikuluan, xedatutakoaren arabera egin da txosten hau.</p>	<p>del Decreto del Decreto 8/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno.</p>
<p>Txostenaren xede den dekretu-proiektua ez dago Aholku Batzorde Juridikoari konsultatu beharrekoen artean. Aldiz, legezkotasun-txostena nahitaezkoa da, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 11.2.a) artikuluan jasotako dekretu-proiektua baita, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailen egiturari eta antolamenduari eragiten dion gai bat baita.</p>	<p>El proyecto de Decreto objeto de informe no está incluido entre los que deben ser consultados a la Comisión Jurídica Asesora, mientras que sí es preceptivo el informe de legalidad, por tratarse de un proyecto de Decreto de los incluidos en el artículo 11. 2 a) del Decreto 144/2017, de 25 de abril, del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco al tratarse de un proyecto de Decreto en un asunto que afecta a la “Estructura y organización de los departamentos de la Administración General de la Comunidad autónoma de Euskadi”.</p>
<p>a) Xedea:</p> <p>Dekretu-proiektuaren xedea da Migrazio eta Asilorako Euskal Foroa sortzea, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitzea. Sail hori Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren bidez sortu zen, Euskal Autonomia Erkidegoaren</p>	<p>a) <u>Objeto:</u></p> <p>El objeto del proyecto de Decreto es la creación del Foro Vasco de Migración y Asilo y su adscripción al Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales. Dicho Departamento fue creado mediante el Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los</p>

<p>Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena.</p>	<p>Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.</p>
<p>Horrez gain, adierazi behar da urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuaren bidez Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dela, eta bertan sartzen direla goian aipatutako gaiak, migrazioa eta asiloa. Zehazki, aipatutako 12/2021 Dekretuaren 15.1.a) artikuluan adierazten da Gizarte Politiketako Sailburuordetzari dagokiola, besteak beste, politika publikoa planifikatzea, gainbegiratzea eta ebaluatzea honako jardun-arlo hauetan: immigratioa eta asiloa, nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonei arreta ematea eta migrazioak. Bestalde, Sailburuordetza horren mende, Dekretuak berak 18. artikuluan ezartzen du Migracio eta Asilo Zuzendaritzak izango duela gai horietan eskumena.</p>	<p>Manifestar además que mediante el Decreto 12/2021, de 19 de enero, se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, y en él se incardinan las materias arriba indicadas, migración y asilo, concretamente en el artículo 15. 1 a) del citado Decreto 12/2021 señala que corresponde a la Viceconsejería de Políticas Sociales entre otras la planificación, supervisión y evaluación de la política pública en las siguientes áreas de actuación: inmigración y asilo, la atención a personas solicitantes de protección internacional y las migraciones. Por otro lado, dependiente de la citada Viceconsejería, el propio Decreto en su artículo 18 contempla que la Dirección de Migración y Asilo será la competente en dichas materias.</p> <p>Por tanto, queda clarificado el ámbito competencial al que se circscribe el presente borrador de Decreto, y no cabe objeción al respecto.</p>
<p>Horrenbestez, argi geratu da dekretuzirriborro honek hartzen duen</p>	

<p>eskumen-eremua, eta ezin da horri buruzko eragozpenik jarri.</p>	<p>b) <u>Competencia y rango normativo.</u></p>
<p>b) Eskumena eta arau-maila.</p> <p>Eskumenen ikuspegitik, Sailaren txosten juridikoak behar bezala islatzen duen bezala, migrazioaren eta asiloaren arloek atzerritartasunarekin harreman estua dute, Estatuaren eskumen esklusiboa dena, Espainiako Konstituzioaren (EK) 149.1.2 artikuluak, naziotasuna, immigrazioa, emigrazioa, atzerritartasuna eta asilo-eskubidea barne hartzen baititu Estatuak eskumen esklusiboa duen gaien artean. Hala ere, 31/2010 Konstituzio Auzitegiaren Epaiaik onartu du autonomia-erkidegoek immigrazioaren arloko eskumen-ahalmenak balia ditzaketela. Immigrazioa biztanleria-mugimenduetatik eta mugimendu horien gaineko kontroletik haratago doan zeharkako fenomenoa denez, eta kontuan izanik migrazio-fluxuak saihesteko dauden oztopoak eta eragozpenak gorabehera, horiek gertatzen direla eta Euskal Autonomia Erkidegoan (EAU) dauden migratzaileek gizarte-laguntza behar dutela, EAUk laguntza hori eskeini</p>	<p>Desde el punto de vista competencial, tal y como refleja oportunamente el informe jurídico departamental, las materias de migración y asilo guardan relación estrecha con la extranjería que es de competencia exclusiva del Estado, en virtud del artículo art. 149.1.2 de la Constitución española (CE), el cual incluye “nacionalidad, inmigración, emigración, extranjería y derecho de asilo” entre las materias sobre las que el Estado tiene competencia exclusiva. Aun así, la STC 31/2010, ha reconocido que las Comunidades Autónomas pueden ejercer facultades competenciales en inmigración. Dado que se entiende que la inmigración es un fenómeno transversal que va más allá de los movimientos poblacionales y del control que sobre estos se debe realizar, y teniendo en cuenta que pese a las trabas e impedimentos que existen para evitar los flujos migratorios, estos se producen y las personas migrantes que se encuentran en Euskadi precisan de asistencia social, la Comunidad Autónoma de Euskadi (CAE) puede</p>

<p>dezake, eskumen esklusiboa du gizarte-laguntzaren arloan, Autonomia Estatutuaren 10.12 artikuluaren arabera. Laburbilduz, asistentzia-alderdi horretatik gara ditzake migrazioaren eta asiloaren arloko politikak.</p>	<p>ofrecer esa asistencia, pues de conformidad con el artículo 10.12 del Estatuto de Autonomía (EA) la CAE tiene competencia exclusiva en materia de asistencia social. En conclusión, es por dicha vertiente asistencial por la que puede desarrollar políticas en materia de migración y asilo.</p>
<p>Azertutako dekretu-zirriborroaren xedeari dagokionez (hau da, kide anitzeko organo berri bat sortzea, kasu honetan, Migrazio eta Asilorako Euskal Foroa), kontuan hartuta EKren 103. 1 artikuluak printzipio konstitucional gisa aurreikusi duen autoantolaketarako ahalmena, eta, era berean, EAren 10.2 artikuluak EAEk bere erakundeen antolaketa, araubide eta funtzionamendurako duen eskumen esklusiboa zehazten duena, argi dago EAEri dagokiola Administrazio Autonomikoaren barruko eta mendeko organoak sortzeko, aldatzeko eta ezabatzeko beharrezko ahala, kasu honetan EAEko Administrazio Orokorrarena.</p>	<p>En cuanto a lo que es el objeto del borrador de Decreto analizado, esto es, la creación de un nuevo órgano colegiado, en este caso, el Foro Vasco de Migración y Asilo; atendiendo a la potestad de autoorganización que contempla el artículo 103. 1 de la CE como principio constitucional, y que a su vez el artículo 10. 2 del EA determina la competencia exclusiva de la CAE para la organización, régimen y funcionamiento de sus instituciones, es evidente que corresponde a la CAE la potestad necesaria para la creación, modificación y supresión de órganos encuadrados y dependientes de la Administración Autonómica, en este caso de la Administración General de la CAE.</p>
<p>Hala ere, dekretu-zirriborroaren azken xedapenetako lehenengoak adierazten duen bezala, subsidiarioki</p>	<p>No obstante, como refleja la Disposición Final Primera del borrador de Decreto, con carácter subsidiario</p>

<p>aplikatuko da funtzionamenduan eta prozedura-gaietan aurreikusi ez denerako, bai Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, bai Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean (SPAJL).</p>	<p>para lo no previsto en cuanto a su funcionamiento y cuestiones procedimentales serán aplicables tanto la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas como la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público (LRJSP).</p>
<p>c) Prestatzeko prozedura.</p> <p>Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak informatzen dugun ekimena prestatu eta izapidetu du, prozedura-legezkotasuna zehatz-mehatz, arrazoituta, egoki eta zorrotz betez, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legean oinarrituta. Horri dagokionez, adierazi behar da arau hori indargabetu egin duela Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legeak; hala ere, aipatutako 6/2022 Legearen Xedapen Iragankorrak adierazten duen bezala:</p> <p>“Lege hau indarrean sartu aurretik hasitako prozedurak amaitu arte izapidetuko dira, aurreko araudiaren arabera.”</p>	<p>c) <u>Procedimiento de elaboración.</u></p> <p>El Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, ha elaborado y tramitado la iniciativa que informamos, cumpliendo de manera detallada, razonada, adecuada y rigurosa la legalidad procedural, sustentada en la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General. Al respecto señalar que la citada norma ha sido derogada por la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, no obstante, como señala la Disposición Transitoria de la citada Ley 6/2022:</p> <p><i>“Los procedimientos iniciados con anterioridad a la entrada en vigor de la presente ley se tramitarán hasta su</i></p>

<p>Bidalitako expedienteak dokumentu hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Agindua, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Dekretua egiteko prozedura hastea erabakitzentzen duena.</li> <li>• Agindua, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, dekretu-proiektuari aldez aurreko onarpena ematen diona.</li> <li>• Dekretu-proiektua justifikatzeko memoria, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak egina.</li> <li>• Justifikazioko Memoria Teknikoa, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak egina.</li> <li>• Migrazio eta Asilorako Euskal Foroa sortzeko dekretu-proiektuari egindako oharra aztertu eta aztertzeko memoria.</li> <li>• Sail sustatzailearen aholkularitza juridikoaren txosten juridikoa.</li> <li>• Generoaren araberako eraginari buruzko txostena</li> </ul>	<p><i>conclusión de acuerdo con la normativa anterior.”</i></p> <p>El expediente remitido consta de los siguientes documentos:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Orden de la Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, por la que se acuerda el inicio del procedimiento para la elaboración del Decreto.</li> <li>• Orden de la Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, por la que se procede a la aprobación previa del proyecto de Decreto.</li> <li>• Memoria justificativa del proyecto de Decreto, elaborada por la Dirección de Migración y Asilo.</li> <li>• Memoria Técnica Justificativa elaborada por la Dirección de Migración y Asilo.</li> <li>• Memoria de Estudio y Análisis de las observaciones realizadas al Proyecto de Decreto por el que se crea el Foro Vasco de Migración y Asilo.</li> <li>• Informe Jurídico de la Asesoría Jurídica del Departamento promotor.</li> <li>• Informe de Impacto en Función del Género</li> </ul>
---	---

<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena.</li> <li>• Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena.</li> <li>• Herritarrok Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren txostena.</li> <li>• Zuzendaritza sustatzailearen txostena, enpresan duen eraginari buruzkoa.</li> <li>• Lan eta Enplegu Sailaren txostena.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Informe de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.</li> <li>• Informe de la Dirección de Normalización Lingüística.</li> <li>• Informe de la Dirección de Atención a la Ciudadanía e Innovación y Mejora de la Administración.</li> <li>• Informe de la Dirección promotora sobre el impacto en la empresa.</li> <li>• Informe del Departamento de Trabajo y Empleo.</li> </ul>
<p>Aurrekariak ikusita, ekimena sustatu duen sailaren izapidegilea zuzena eta zuzenbidearen araberakoa da.</p>	<p>Vistos los antecedentes, el proceder tramitador del Departamento promotor de la iniciativa, es correcto y adecuado a derecho.</p>
<p><b>II. DEKRETU-PROIEKTUAREN EDUKIARI BURUZKO GOGOETAK</b></p>	<p><b>II. CONSIDERACIONES SOBRE EL CONTENIDO DEL PROYECTO DE DECRETO</b></p>
<p>Dekretuaren zirriborroak 6 kapitulu ditu, 22 artikulutan garatuak, xedapen gehigarri bat, xedapen indargabetzaile bat, eta hiru azken xedapen.</p> <p>Lehenengo kapituluan, xedapen orokorrak arautzen dira, besteak beste, Foroaren sorrera eta atxikipena arautzen dutenak,</p>	<p>Contiene el borrador de Decreto 6 Capítulos, desarrollados en 22 artículos, una Disposición Adicional, una Disposición Derogatoria y tres Disposiciones Finales.</p>

<p>sortutako organoak garatuko dituen eginkizunak eta haren osaera. Helburua honako hau da: “gizarteratzean eta atzerritar jatorriko etorkinen eskubideak eskuratzean oinarritutako immigrazio-politika aktibo integrala garatzen laguntzea”. Foroaren osaerari dagokionez, 4. artikuluak dio Osoko bilkurak, Lanbatzordeek eta Batzorde iraunkorrik osatuko dutela. Foroaren osaerari buruz, oro har, eta bereziki organoei buruz, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat etorriz, bi sexuen ordezkaritza orekatua lortzeko neurri egokiak hartuko direla jasotzen da.</p>	<p>En el primer Capítulo regula las disposiciones generales, entre las que regula la creación y adscripción del Foro, las funciones que va a desarrollar el órgano creado y la composición del mismo. El objeto que se concreta en: <i>“contribuir a desarrollar una política activa integral de inmigración basada en la integración social y en el acceso a los derechos de las personas inmigrantes de origen extranjero”</i>. En cuanto a la composición del Foro, el artículo 4 señala que estará compuesto de Pleno, Comisiones de Trabajo y Comisión Permanente. Sobre la composición del Foro en general y de los órganos en particular, de conformidad con la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres, se recoge que se adoptarán las medidas oportunas para lograr una representación equilibrada de ambos性別.</p>
<p>Era berean, proiektuak Idazkaritza Tekniko bat eta Koordinaziorako Idazkaritza bat aurreikusten ditu, eta Migrazio eta Asiloko Zuzendaritzako langileek egingo dituzte lan horiek. Hala ere, Koordinaziorako Idazkaritzaren kasuan, proiektuak aurreikusten du idazkaritza hori zuzendaritza horretatik kanpoko baliabideetan ere oinarritu ahal izatea. Horri dagokionez, justifikazio-eta ekonomia-memoriak jasotzen</p>	<p>Asimismo, el proyecto contempla la existencia de una Secretaría Técnica y otra Secretaría de Coordinación, las labores de las cuales las realizará el personal de la Dirección de Migración y Asilo. No obstante, en el caso de la Secretaría de Coordinación el proyecto prevé que dicha Secretaría</p>

duen bezala, proiektuak eragina du aurrekontuan, eta, besteak beste, Koordinaziorako Idazkaritzaren funtzioak garatzeko administrazioaz kanpoko baliabideak erabiltzeko aurreikuspenari dagokiona jasotzen du.	pueda apoyarse también en recursos ajenos a dicha Dirección. Al respecto, como recoge la Memoria Justificativa y Económica, el proyecto tiene incidencia presupuestaria, y, entre otras, contempla la correspondiente a la citada previsión de emplear recursos ajenos a la propia administración para desarrollar las funciones de la Secretaría de Coordinación.
II. kapitula Foroaren Osoko Bilkurari buruzkoa da, laburbilduz, foroaren funtzioei, osaerari eta funtzionamenduari buruzkoa.	El Capítulo II está referido al Pleno del Foro, en resumen, a las funciones del mismo, su composición y funcionamiento.
III. kapituluak lan-batzordeak eta batzorde iraunkorra arautzen ditu, hau da, batzordeen osaera eta funtzionamendua.	El Capítulo III regula las Comisiones de Trabajo y la Comisión Permanente, esto es, la composición y funcionamiento de las mismas.
IV. kapituluan immigrazioaren eta asiloaren arloan lan egiten duten elkarteek Lan Batzordeetan parte hartzeko prozesua arautzen da. Bertan, elkarte horiek lan-batzordeetako kide izateko bete behar dituzten baldintzak zehazten dira, bai eta batzordeetako kide diren elkarteak hautatzeko prozedura ere, eta, era berean, elkarte horiek osatzen dituzten elkarteen artean, koordinazio-eginkizuna beteko duen elkartea aukeratzea.	En el Capítulo IV se regula el proceso de participación de las asociaciones que trabajan en materia de inmigración y asilo en las Comisiones de Trabajo. Determina en el mismo los requisitos que deben cumplir dichas asociaciones para ser miembros de las Comisiones de Trabajo y el procedimiento de elección de las asociaciones integrantes de las Comisiones y a su vez, entre las asociaciones integrantes la elección de la asociación que realizará la función de coordinación.
Koordinaziorako Idazkaritza Teknikoa V. kapituluan arautzen dira. Kapitulu horretan, idazkaritza bakoitzaren eginkizunak jasotzen	

<p>dira, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren mende egongo direla zehazten da, eta, laburbilduz, batzordeei lagunza emango dietela, horiek behar bezala funtziona dezaten.</p>	<p>Las Secretarías Técnicas de Coordinación se regulan en el Capítulo V, el mismo contempla las funciones de cada una de ellas, determina que estarán bajo la dependencia de la Dirección de Migración y Asilo y que en resumen darán soporte a las Comisiones para el correcto funcionamiento de las mismas.</p>
<p>Azkenik, VI. kapituluak Foroaren gastuak eta dietak arautzen ditu, immigrazioaren arloan eskumena duen sailaren aurrekontu-kredituen kontura izango direnak. Aurreikuspen hori oso egokia da; izan ere, sailaren edo gaur egun arlo horretan eskumena duen zuzendaritzaren izena aldatuz gero, haren aipamenak ez du aldaketarik izango.</p>	<p>Por último, el Capítulo VI regula los gastos y dietas del Foro que correrán a cargo de los créditos presupuestarios del Departamento competente en materia de inmigración.</p>
<p>Aipamen berezia merezzi du xedapen indargabetzaile bakarrak; izan ere, zioen azalpenean aipatzen den bezala, dekretu-proiektu honek Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa ezabatzea aurreikusten du, eta hori xedapen indargabetzaile horren bidez egiten da. Hala, Proiektu honek honako hauek indargabetza aurreikusten du: 200/2002 Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa sortzen duena, eta</p>	<p>Esta previsión es muy oportuna, dado que ante un cambio de denominación Departamental o de la Dirección actualmente competente en la materia, la alusión a la misma seguirá inalterada.</p> <p>Mención especial merece la única Disposición Derogatoria, dado que, como ya se menciona en la Exposición de Motivos, este Proyecto de Decreto prevé la eliminación del Foro para la Integración y Participación Social de las ciudadanas y los ciudadanos inmigrantes en el País Vasco, lo cual se hace a través de dicha Disposición Derogatoria. Así es, este Proyecto</p>

<p>2003ko apirilaren 30eko Agindua, Etxebitzitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Herritar Etorkinen Partaidetza eta Integraziorako Foroaren organoen funtzionamendu araudia argitaratzeko agintzen duena.</p>	<p>contempla la derogación del Decreto 200/2002, de 30 de agosto, por el que se crea el Foro para la Integración y Participación Social de las ciudadanas y los ciudadanos inmigrantes en el País Vasco, y la Orden de 30 de abril de 2003, del Consejero del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales por la que se ordena la publicación del Reglamento de funcionamiento de los órganos del Foro para la Participación e Integración de las ciudadanas y los ciudadanos inmigrantes.</p>
<p>Zioen azalpenean adierazten den bezala:</p>	<p>Como señala la citada Exposición de Motivos:</p>
<p>“Ildo beretik – ia 20 urte igaro dira Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa sortu zenetik –, Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren V. Jarduera Plana (2018-2020) ebaluatzeko eta Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana (2022-2025) egiteko hausnarketa-prozesu luze eta egiaztatuaren ondoren, kontsulta-organo berri bat sortzeko beharra nabarmendu da.”</p>	<p><i>“En esa misma línea -transcurridos prácticamente 20 años desde la creación del Foro para la Integración y Participación Social de las ciudadanas y los ciudadanos inmigrantes en el País Vasco-, tras un prolongado y contrastado proceso de reflexión en el marco de la evaluación del V Plan de actuación en el ámbito de la Ciudadanía, Interculturalidad e Inmigración (2018-2020) y elaboración del VI Plan Intercultural de Ciudadanía, Inmigración y Asilo (2022-2025), se ha puesto de manifiesto la</i></p>
<p>Beraz, Foro berri honek aurrekoa ordezkatuko du eta, ondorioz, garai berrietara eta behar berrietara egokituko ditu Foroaren funtzoak,</p>	

<p>osaera eta funtzionamendua.</p> <p>Legezkotasun materialari dagokionez, dekretu-proiektua bat dator legezkotasun-parametroekin, bai lehen aipatutako SPAJLn xedatutakoarekin, bai Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legean aurreikusitakoarekin.</p> <p><b>III. ONDORIA.</b></p> <p>Horregatik guztiagatik, uste dugu txosten honen xede den dekretu-proiektua, egindako oharrak kontuan hartuta, bat datorrela legearekin.</p> <p>Txosten hau egiten dut, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen mende jartzen dut, Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.</p>	<p><i>necesidad de crear un nuevo órgano consultivo.”</i></p> <p>Por tanto, este nuevo Foro viene a sustituir al anterior y, en consecuencia, a adaptar a los nuevos tiempos y a las nuevas necesidades tanto las funciones, como la composición y el funcionamiento del Foro.</p> <p>En materia de legalidad material, el proyecto de decreto se ajusta a los parámetros de legalidad, tanto por lo dispuesto en la ya mencionada LRJSP, como por lo previsto en la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco.</p> <p><b>III. CONCLUSIÓN.</b></p> <p>Por todo lo antedicho consideramos que el Proyecto de Decreto objeto del presente informe, atendidas las observaciones realizadas, es conforme a la legalidad.</p> <p>Este es el informe que emito y que someto a cualquier otro mejor fundado en derecho, en Vitoria-Gasteiz a la fecha de la firma electrónica.</p>
---	---

LETRADUA/EL LETRADO